



“Ajangiz, eskuz landua” liburua  
aurkezpena

“Gerrika”: pilotaria  
eta zine aktorea



Igor Lezamiz  
oroitzapenean

# AJANGIZ



barriak

02 • 2005

Información Municipal del Ayuntamiento de AJANGIZ • AJANGIZko Udal Informazioa

## ABADETXEA, KULTURA ETXEA



Aspaldiko kontua izan da gure herrian. Desanexioa lortu zen egunetik, Kultura Etxea eskatu izan dau Ajangizek. Eta uztaila ezkerotik badaukagu: hogeita hamar urte baino gehiago hutsik egon den abadetxea Kultura Etxea izango da laster.

Herri-erreibindikazioa aspalditik etorren. Negoziaketak ere dezente luzatu izan dira. Azkenean, Udalak lortu dau akordioa etxearen jabearekin, hau da, Gotzaindegiarekin eta 486.000 eurotan (81 miloi pezeta baino gitxiago) erosi deutso harrizko etxe eder hau, 500 m<sup>2</sup> baino gehiago daukazana eta 2.000 m<sup>2</sup> lur urbanoduna.

Balio katastrala 120 miloi pezetatan jarrita dauka. Ajangizko alkateak, Pedro Isasik esan dauanez, hitzarmena “onuragarria izan da herriarentzat, erositakoak ordaindu-takoaren heren bat gehiago balio daualako”.

### 260 m<sup>2</sup>ko solairua

Kultura Etxe barriak Mendieta auzoko 118 zenbakia dauka. Hiru solairu ditu, hirugarrena, ganbara edo trastelekua.

Eskrituratan idatzitakoaren arabera, eraikitako oinplanoak 260 m<sup>2</sup> ditu eta etxeari dagokiozan lurak 3.000 m<sup>2</sup> baino gehiago; hain zuzen ere, 3.144 m<sup>2</sup>.

Eraikuntza ondo dago oro har, baina pintura eta gainerako konponketaren bat ere behar dau. Inguruko lurrek eta hormek lehen bait lehen behar izan dabe premiazko konponketa eta horretan dabil orain udala.

### Ingurua urbanizatu

Antzinako Abadetxearen ingurua urbanizatzen hasi dau udalak. Lur zati irregularra da eta beharrezkoa da atontzea, terrazak egitea eta hormigoizko horma eusgarriak eraikitzea, eskumako argazkian ikusten dan bezela.

Lan honeekin batera, etxearen lurzorua eta hormak konponduko dira.

Lanak egiteko 92.000 euroko aurrekontua erabiliko da. Lanen lehenengo fasea urtea amaitu aurretik bukatuko da eta bigarren fasean, barrutik atonduko da abadetxea.



## ALKATEAREN ESKUTITZA

2005 urtea urte emonkorra izan da herriarentzat: Abadetxea lortu dogu; etxebizitza babestuak eraikitzeko proiektua aurrera doa; herriko hainbat auzotako azpiegiturak konpondu doguz; herriko lagunentzat hainbat ikastaro, jai eta ekitaldi antolatu doguz...

Ajangizen alde gauza on asko egin doguzelakoan nago; eta aldikari honetan egindako batzuk gogoratzen doguz, baina ezin dodaz erabili lerro honeek nik gura neukeen poza adierazoteko. Ezin dodaz erabili, aurreko irailean guztiok hunkitu gintuan gertaera latzak ez deustalako uzten: Igor Lezamiz gure lagun eta lankidearen heriotzak mendiko ezbeharrean.

Mendiak maitemindu egiten gaituela esaten ohi dabe mendi zaleek; hain ederra distiratsu azaltzen danean; eta hain bihotzbakoa ezbeharrean. Horrela dala jakinda ere, ze mingarri egin jakun Igor galtzea era latz horretan...

Igorrek mendia maite eban eta bere herria maite eban. Zinegotzi legez, herriko arazoak konpontzeko lgorren ardura eta ahaleginaren lekuko naz, alkate moduan. Pertsona lez, ez dago ezer gehiago esaterik guztiok ondo ezagutzen zenuen eta: ondo prestatutako gazte eskuzabala, jakinminez betea, hainbeste emoteko gai zana eta herriarengandik hainbeste hartzea merezi ebana. Horrexegatik maite genduan eta maite dogu Igor. Goian Bedi, Igor, gure laguna.

## HERRIKO TABERNA ATONDUTA

Aurreko abuztuan hasi eta irailean amaitu ziren Herriko Tabernan egindako azken atontze lanak. Lanak iaz hasi ziren, eta ordutik hona, etxaurreari hausturak konpondu jakoz; etxaurrea pintatu da eta kanpo aldeko egur guztiak leundu eta bernizatu dira. Herriko Tabernaren barrualdea ere pintatu da lizunaren aurkako margo berezi batez eta metro t'erdiko portzelanazko gres zokaloa jarri jako taberneari. Atontze



lanak egin diren bitartean uste bako arazoak agertu izan dira berotze sisteman eta kalefakzio sarea barriztatu egin da.

Lan guzti honeek egiteko 15.492 euro erabili izan dira.

## ZUBITXU-ZUBIALDE BIDEAN ATONTZE LANAK



Zubitxu-Zubialde bidean egiten gabiltzan atontze lanak laster amaituko dira eta bidea lehen baino nahiko zabalago geratuko da.

Udala herriko bideak zabalatzeko lanetan dabil aspalditik. Oraingoan, 240 metroko luzeera daukan zatiari ekiten deusogu oraingoan, bide zaharraren zabalera hiru metrotik lau metro t'erdia

ra zabalatzeko asmoagaz. Bide barriak urbidea ere izango dau.

Lanak egiteko lurra mugitu behar izan da eta ondoren, barriro bete legarra, eta aglomeratu asfaltikoarekin. Urbideko urak batzeko arketa bat jarri da.

Lanok egiteko 74.791 euro erabili dira.

## EZTILOTZA-LAUBIDE BIDEKO URBIDE BARRIAK

Eztilotza-Laubide bitarteko bidean konpontze lanak dira. KUNETAK altuera handia dauka leku batzutan eta ur bideok atontzen dabil Bizkaiko Foru Aldundia. Atontze lanak bere kontura dira.

laz, Ajangizko udalak 80.650 euro erabili ebazan bidea bera atontzeko, batez ere, asfaltoz estaltzeko zulo eta hausturak. Herriko hainbat lagunek eguneroko paseoa egiteko erabiltzen daben bide hau behar bezela dago barriro ere.





# KANPANTXUKO ESKOLA: LEHENGO ITXURA BARRIRO ERE

Eskola konpontzeko lanak amaitu dira eta lehenengo itxura berreskuratu dau

Kanpantxuko eskola zaharrak gaztaroko itxura hartu dau eta lehenengo aterpea erakusten dau barriro ere. Udalak zati bitan egin dauz atontze lanak. Iaz hasi zan lehendabiziko fasea: aterpeko ekialde eta iparraldeko hormak bota ziren eta aterpe barrieren eraikuntza hasi zan. Lurzoru zaharraren ordez barria ipini ondoren, egurrezko sei arkupe eraiki ziren granitozko zutabeen gainean. Aterpea teilaz estali zan orri irazgatxa azpian ipinita. Teilatu-hodi eta zorrotanak kobrez egin ziren. Lan honeetarako 39.000 euro erabili ziren lehen fase honetan.

Bigarren fasea, aurreko abuztua eta iraila bitartean egin izan da, eta 23.000 euro gehiago erabili dira. Bigarren txandako lanen artean aitagarrienak honeexek: harri hormaren barrizaketa, zokalo errematea, aterperako atea zarratzea, mortero hidrofugoz egindako raseoa, margo mineral eta bak-



terizidak erabilia pintatzea, euri-urak jasotzeko sare barria eta 20 zentimetro asfalto, legar eta porlan jarri izana patio osoan.

## Omenaldi plaka ikasle ohiei

Kanpantxuko eskolak 1930ean hartu eban lehenengo ikasleak. Bertako ateetatik urten eben azkenak 1975an pasatu ziren. Aitatutako urteon artean, hainbat ajangiztar hazi eta hezi da ikasgela hareetan.

Aurreko uztailaren 3an ikasle ohi talde handia alkartu zan Kanpantxuko frontoian anaiarteko bazkaria egiteko. Bazkarian

makina bat kontu azaldu ziran. Kanpantxuko Eskolaren oroitzapenak jarraitu zezan hogeita hamarren bat plaka banatu ziren lehenengo eta azkenengo promozioetako eskola umeen artean. Plakan idatzitakoa hauxe: "Kanpantxuko Eskola 1930-1975. Ajangizko herriak auzoko ikasleei: <Ume denboran ikasiak, nagusitan oroit>. Ajangiz, 2005eko uztailak 3".



## AJANGIZ-I BURUZKO LIBURUA

Ajangizko Udaletxeak herriari buruzko liburua argitaratu dau, "Ajangiz, eskuz landua" izenburuagaz. Liburuaren aurkezpena aurreko irailean egin zan herrian.

Liburuak 115 orri daukaz, eta kolorezko argazki ugari erabilia, herriaren historia eta nortasuna adierazten dau.

"Ajangiz, eskuz landua" liburuak herriko ondasun naturalak eta kulturalak zabaldu nahi ditu. Lehenengo eta behin, ajangiztarrei zuzenduta dago liburua, gure ekosistema, paisai eta inguruneaz kargutu gaitzen. Gure izaera ezagutu gura dabeneztat edo gure ingurutik turismo kulturala egin nahi dabeneztat ere baliozgarria izango da.

Argitaratutako liburua herritar guztien artean banandu da eta soberako aleak eskola, alkarte, turismo bulego, liburutegia eta mundu zabaleko Euskal-Etxe guztietara, 162 Euskal-Etxeetara bialdu dira.

Liburuaren mila ale argitara emon dira, euskeraz eta gaztelera. 25.300 euro erabili dira argitaratzeko.

### Ajangiz, eskuz landua

Liburua Aixerreku enpresak prestatu dau. Aixerreku taldea Urdabai Biosfera Erreserbako naturalistek eta gidariek osotzen dabe.

Ajangizi buruzko datu zabalak emoten ditu hasieran liburuak eta gero historiaren gorabeherak aitatzen dauz, aurre-historiatik hasita XXgn. menderaino. Ajangizko ondasun natural, kultural eta etnografikoa lantzen ditu. Herriatik egin daitekezan zenbait paseabideren barri ere emoten dau azken aldean.



# JAVIER GERRIKAETXEBARRIA, “GERRIKA”: “AMERIKETAN 9 PARTIDU EGITEN GENDUAZAN ASTERO”

Historian izan dan pilotaririk handienetakoa dogu. Atzelari apartekoa, hor jokatzeko altuena izan ez arren -metro hirurogei eta hamarreko altuera dauka- gitxik jokatu dabe bera baino hobeto frontoiaren atzekaldetik. Javier Gerrikaetxebarriak gazte aroko indarrari, erbioari eta grinari eusten deutso oraindik ere, bere bizitza osoan egin izan dauan legez: bai pilota partiduetan eta baita zine kameraren aurrean ere, orain 52 urte direla Mendietako Biezkua baserrian jaiotako ajangiztar honek Hollywoode-erako lan egin izan dau eta...

**G: Beti zesta-puntarako prest...**

**E:** 15 urte gaz, eskuz jokatzeko hasi neban. Handik urtebetera, zesta-puntan hasi eta profesionala egin nintzen segiduan. 1969an egin neban Gernikan lehengo partidua.

**G: Handik lasterrera, Estatu Batuetara joan zinen...**

**E:** 17 urte bete baino lehen, Floridako Tampan nengoan. Eta han “Urteko Pilotari gazterik onena” izendatu ninduten.

**G: Zelakoa zan zuren eguneroko bizimodua han?**

**E:** Beste hiru pilotari gazterekin batera bizi ginen, alokatu-tako apartamentuan. Ni etxeke sukaldaria nintzan eta barbakoa eta horrelakoak egiten nebazan. Kotxe zaharra ere erosi behar izan genduan, etxetik frontoira joateko. Ameriketara ibiltzen ziren auto handi hareetako bat zan.

**G: Entrenamendu asko, ezta?**

**E:** Entrenamendurik ez genduan egiten, partidua jokatzeko genduan. 9 partidua astero: 3, goizez eta 6, gabaz. Ameriketako frontoia apustu hutsa da; postura asko egiten dira, bata bestearen atzetik, eta diru asko dabil saltsan.

**G: Zuek ere hainbat diru irabazten zenuen...**

**E:** Hasi nintzanean, hilero 500 dolar irabazten nebazan, eta horrez gain, partidua jokatzeko emoten euskuena, kintelaren arabera irabazten zana eta urteroko eskupekoa. Diru asko irabazte zan, bai.



Piketean 30º zero azpitik

**G: Frontoi askotan ibili zara Estatu Batuetan...**

**E:** ¡Eta hemen, eta Frantzian!. Estatu Batuetan Tampan hasi nintzan. 1978an, Florida joan ginen eta handik hiru urtera, Hartford-era, Connecticut Estatuan, pilotari aukeratu ez osotutako talde batean. Han 10 urte egin nebazan, huelgan emondakoak kontutan hartuta.



**G: Zer egin zenuen pilotarien huelga luzea izan zan bitartean?**

**E:** Hotz handiagaz, zero azpitik 30 graduko eguraldiagaz piketea nintzen Connecticut-en. Huelga oso gogorra izan zan, 1987tik 1990era. Hiru urte emon genduan partidurik egin barik.

**G: Eta Gernikara itzuli zinen, barriro ere pilotan jarraitzeko...**

**E:** Gogorra egin jatan urte hareek gainditzea; hainbeste denbora jokatu barik emon eta gero. Baina ekin behar neutsola eta, ekin neutsori barriro ere. Azkenean, lepoko lesio batek frontoitik atara ninduan 1992an.

Jon eta Nerea seme-alabak

**G: Estatu Batuetan ezkondu ere egin zinan...**

**E:** Tampan ezkondu nintzan, 1978an, eta etorri baino lehentxoago dibortziatu nintzan. Hala ere, hartuemon ona daukat emaztea izandakoagaz. Bera italiarra da jatorriz eta seme-alaba bi daukaguz alkarregaz: Jon eta Nerea. Jonek 23 urte daukaz orain eta Nereak, 20. Noizean behin etortzen jataz bisita egiten, eta behar bada, laster joan beharko naz neu bertara, ezkontzaren bat dala eta.

Zine aktorea

**G: Pilotaren historian badaukazu zeure lekua, baina zine pantailatan ere betirako geratu zara. Zelangoa izan zenuen zinearen esperientzia?**

**E:** Nire bizitzan jokatu dodan partidurik luzeena izan zen hori: hiru egun pelikula egiten pilotakada gitxi batzuk emoteko! Eta hori baino okerragoa: Bud Spencer-ek irabazi eustan partidua! 1978an izan zan, “Par impar” pelikularen errodejean, Miamin, Bud Spencer eta Terence Hill-ekin batera.

**G: Ba, gustokoa izan zenuela uste dot, barriro ere pelikula munduan sartu zinalako...**

**E:** Bai, “Bonanza” seriearen kapitulo batean ere parte hartu neban. Bonanzatarren errantxoan egon ginen eta herri bazkari bat egin genduan bertan. Nik pilotariarena egiten neban, eta frontoitik ateratzerakoan autografoak firmatzen nebazan.

**G: Orain arte egindakoagaz zezerren damurik bai?**

**E:** Bud Spencer-i partidua irabaztea izteagaz ez bada!. Gainerakoaz, ezelango damurik ez!



# “LALA” AJANGIZEN

Saharako umeak uda aldian hartzeko programan parte hartu dau Ajangizko udalak azken hiru urteetan. Besteak beste, Afdalla Bachir, “Lala”, ume saharaiarraren bidaia ordaindu dau eta gure artean izan dogu azken hiru urteetan. Uda aldian, ajangiztar bat gehiago dogu, euskeraz ondo baino hobeto moldatzen dana gainera.

Lala mutil bikaina da. 10 urte ditu eta Sug herrikoa da; dakizuenez, Ajangizek anaitze prozesua hasita dauka Saharako Sug herriagaz. Elvira Larrinaga Lala-ren ama da Ajangizen, eta hauxe diosku honen inguruan: “Guretzat beste seme bat da; eta gure semeentzat, anai bat”. Elvirak eta Iñaki bere senarrak 3 seme daukiez; bi, bikotzak eta Lala-ren urteetakoak. “Hirurak batera dagozenezan,



hirukotzak direla” esaten dau Elvirak, eta horrela emoten dau ere.

Ume saharaiar bat semetzat hartzea “aparteko esperientzia dala” dino Elvirak: “Umeoi eskeintzen deutseguna baino gehiago hartzen dogu guk; geure burua umilago ikusteko baliozgarria da”.

Saharako errefuxiatuen kanpamentura Elvirak egin dauan bidaia ere ordaindu dau udalak. Han, Lala eta bere familia ikusi ahal izan dauz. Elvirak berak kontatu euskun saharan ikusitakoa aurreko irailaren 2an emondako hitzaldian, Busturialdeko ume saharuaiei egindako agurtze festa baino egun bi lehenago.

## Sug, herri anaia Saharan

Aurreko irailaren 2 eta 4an, “Lala” agurtzeko ekitaldiak antolatatu ziren Ajangizen, udalak babestuta. Sug herrian bizi dan egoera azaldu euskun Elvira Larrinagak eta agurtze ekitaldietara Busturialdean uda pasatu daberen ume saharaiarrak

etorri ziren. Besteak beste, herrian izan genduzan argazki erakusketa, Saharako eta Euskal Herriko musika eta gastronomia -pintxo morunoak, tea, cus-cus, sardinak...- eta jaima barruan “Ilargiaren sekretua” pelikularen emonaldia.

## BIZITZA ETA HERIOTZA SAHARAN

Saharaiarrak tribu nomadak dira, baina desbardinak tuareg edo bereberen ondoan, bestelako gizarte antolaketa eta kultura ohiturakaz.

### Jaiotza:

Saharako emakume askok jaiman bertan erditzen ohi dabe, emaginak lagunduta. Jaio eta zazpigarren egunera jai egiten da eta jaiobarriari izena jartzen jako. Izena zozketaz erabakitzen da senitartekoen izenen artean.

### Ezkontza:

Lehen, gurasoen artan ebazten zan ezkontza; gaur egun, gazteek heuren hartzen dabe erabakia. Ezkontza jai handia da, 3 edo 4 egunez luzatzen dana. Senarrak zein emazteak dibortzioa eskatzeko eskubidea daukie.



### Heriotza:

Hildakoaren gorpua biluztu, garbitu eta lurrindu ondoren oihal baten barruan batzea eskatzen dau Islamek ezarritako erritualak. Meka-ra begira lurperatzen da gorpua, alboz, eta harri bi jartzen dira lurraren gainean gizonezkoa bada, eta hiru, andrazkoa bada.

# AJANGIZTARRENTZAT ZABALIK



## “Ajangiz Udala” txirrindulari sari nagusia

Aurreko uztailaren 14an egin zan “Ajangiz udaleko Txirrindulari Sari Nagusia” lasterketa, Gernikako Txirrindulari Alkarteak antolatuta eta Ajangizko udalak babestuta.

Kirolari askok parte hartu eben lehiaketan: 102 txirrindulari guztira. Ibilbidea, 46 kilometrokoa izan zen eta lehiaren irabazlea, Aitor Alvarez gaztea.

## Umeen dantza taldea

Aurreko urriaren 1ean hasi zan Euskal Dantza Ikastaroa, herriko ume eta gazteei zuzenduta. Aurten, 23 ikasle parte hartzen dabe. Ikastaroak datorren urteko maiatzera arte iraungo dau.

Bigarren aldiz egiten da ikastaro hau, Iñaki Olanoren gidaritzapean barriro ere. Zuzendaria, Gernikako dantzari ezaguna da, Olaeta Ballet-eko kidea.

Iñakik esan deuskunez, irakaskintza ikasleen urteetara moldatu behar da: “hiru edo lau urteko ume txikiei esate baterako, musikaren eta dantzaren erritmoa barruratzten irakatsi behar jake”. Aurtengo dantza taldeak datorren urteko herriko jaietan “sorpresa polita” emongo deuskula iragarri dau Olanok.

### TEFONO ERABILGARRIAK:

AJANGIZKO Udala: 946 251 913

(ordutegia 8:00-15:00)

Sos Deiak: 112

Mediku larrialdiak: 946 035 800

Suhiltzaileak: 946 250 917

### Lore sikuak

Lore siku eta prentsatupei buruzko ikastaroa aurreko iraila eta urrian egin zan, udaletxeko Kultura eta Nekazaritza Sailek antolatuta. 7 ikasle izan ziren, eta ikasitakoa erabilia lore sortak egin ebazan.

### Yoga

Aurten barriro ere hasi da yoga ikastaroa. Klaseak azaroan hasi dira eta 5 ikasle apuntatu dira, bostak emakumezkoak.

### Gozogintza

Gozozaleentzat ikastarorik gozoza-leena, duda barik. Sukaldaritza ikastaroa aurten gozogintzara zehaztu zan. Aurreko martxoaren 4an egin zan Kanpantxu-ko txokoan eta martxoaren 11an, Mendietakoan. 15 lagunek parte hartu eben.



### Inauteriak

Urtarrilaren 7an mozorro jaia egin zan Mendieta-ko txokoan. Umeentzako jolasak egon ziren, kareta egiteko tailerra eta gozokiak banandu ziren mozorrotutakoan artean. Jaiari amaiera emon jakon Herriko tabernan egin zan txokolatada bategaz.

### Guztion trebetasunak lantzen

Gizon eta emakumeen arteko bardingintasuna martxan jartzeko ikastaro praktikoa izan da. Hain zuzen ere, hiru tailer egin ziren azaroan, bakoitzak hiru ordukoa. Elektrizitate, iturgintza eta brikolaje lanak egin ziren.

## UDA BETE BETEA

### AJANGIZKO “OLINPIADAK”

Ekainaren 27an egin ziren “Olinpiada” bereziak, herri kirolak nagusi izanda.

### DISKO-FESTA

Musika, erritmoa eta dantza ume eta gazteentzat. Mendietan izan zan, ekainaren 28an.

### ZIRKOAREN EGUNA

Ekainaren 29an, jolas, tailer eta puzgarriekaz txikienentzat, Mendietan.

### IPUIN MUSIKALA

Ekainaren 30ean izan genduan ipuin musikala entzuteko aukera Mendieta auzoan.

## IN MEMORIAM

Igor Lezamiz Belarrinaga

1972-ko Abenduaren 20-an jaio eta 2005-ko Maiatzaren batean hil zen, mendi istripuan, Mugarra mendian.

Beti izan zen gazte zintzo eta abertzalea, beren lanez gain denbora aurkitzen zuen gizartearekin zuen konpromisoa betetzeko eta gazte gaztetatik gogor lan egin zuen asoziazio desberdinetan gizarte hau hobetzeko aldatzeko gogoarekin, bere azken zerbitzua gizartearentzako, Ajangizko zinegotzia izatea zen. Ez zen egon denbora asko gurekin lanean, baina ez dugu ahaztuko inoiz beren izaera eta bere gogoaz gauzak egiteko.

Maiatzaren 1-ean joan zaigun gure artean Igor mendi punta batean. Bere pasioa mendia zen eta badakigu bere espiritua beti izango dela gure Euskal Herriko mendietan.

Guk lagun handi bat galdu dugu, baina beti izango da gurekin mendi punta bat begiratzekoan.



Josu Murgialdai, Marisa Beitia